



HAIZEA dinamika:
Euskaraz bizi eta ikasi Nafarroa osoan

- . AURKEZPENA:

Duela bi kurtso “Vascuenceren Legearen” harresian pitzadura bat ireki zen. Urte luzeetako herri lan eta presioari esker irekitako pitzadura. Horren ondotik etorri ziren zonalde diskriminatuan lehen D eredu lerroak sare publikoko ikastetxeetan, familiekin egindako apostuari esker. Aldaketa heldua zen Nafarroako hegoaldeko euskal hezkuntzara. Aldaketa txikia, zonifikazioa bere horretan jarraitzen bai du eta ondorioz euskaldunen hizkuntza eta hezkuntza eskubideak oraindik ere bermatuak ez daudelako. Baina aldaketa garrantzitsua euskararen bazterketa egoera aldatzeko urrats berriak eskaintzen duelarik, eta euskaraz ikasteko aukera sare publikoan zabaltzeak belaunaldi berrientzako euskalduntzeari begirako arnasbideak eskaintzen dielako. Ondorioz, momentu horren arte egindako ibilbidean, urrats berriak emateko garaia heldu zitzaigun. Eta aldarrikapenetik eraikitzerako urratsa eman genuen. Edo hobe esanda, aldarrikatuzetik, aldarrikatu eta D eredu lerroak irekitzeari ekitea. Eta orain D eredu lerro berriak ireki direlarik, norabide berri horretan sakontzeko unea heldu dela deritzogu. Hau dela eta, ikasturte honetan D eredu lerroak ireki diren ikastetxeetako hezkuntza komunitateei babesa eman eta euskalduntzeari begirako ekarpen xume bezain gozoa eskaintzea litzateke gure helburua.

- . NOLA? “HAIZEA dinamika”:

Errigorarekin lortzen dugun diru ekarpenari esker, Euskaraz Bizi eta Ikasi” izenpeko ekimen berri bat martxan jartzen D eredu zabaltzeko zonalde diskriminatutako eskoletan: Tafalla, Kaparroso, Lodosa, Antzin, Allo eta Erriberrin.

1) Euskaraz Mintza saio sorta,
euskalduntzea bultzatzeko ekarpena
• D eredu lerro ireki den zonalde diskriminatutako ikastetxe bakoitzean Euskaraz Mintza programaren hiru saioak dohainik eskaintzea:
• Jolas tailerra: guraso eta ikasleentzako
• Euskaraz Mintzaren haurrentzako saio bi: ikasleentzako euskaraz jolasteko saioak

2) “Euskaraz Bizi eta Ikasi” margotze auzolan ibiltaria

• “Euskaraz Bizi eta Ikasi” leloa batetik eta marrazketa librerako tartea bestetik lukeen muralpanel sorta bat marraztea litzateke ekimenaren xedea.
• D eredu lerro ireki den zonalde diskriminatutako ikastetxe bakoitzean panel bat margotzeko litzateke, ospakizun txiki baten testuinguruan (jolas batzuk, hamarretako bat, musika lukeen bafle bat eta muralaren margotzea)
• Panelen margotzea, egun ezberdinetan egingo litzateke herri bakoitzean, ekimen ibiltariaren itxura hartuz.

3) Matrikulazio kanpainarako egunkaria

• D eredu matrikulazeko deia egingo duen egunkaria egin, zonalde diskriminatua zabaltzeko
• Aurreko matrikulazio bi kanpainetan zonalde diskriminatuan ireki diren D eredu lerroetako hezkuntza komunitateko kideen testigantzarekin (familiak, ikasleak eta hezitzaileak)

4) Besarkatu eguna

• D eredu ireki den herri batean ospatuko genuke, zonalde mistora pasa den herri bat izan daiteke ere. Helburua:
• Zonalde diskriminatuan ireki diren D eredu lerro berriei BESARKADA ekintza, berotasuna eta babesa erakusteko.